

Donostian, 2020ko abuztuaren 12an

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Elkarrekin Donostia Udal Taldeko bozeramaile Aitzole Araneta Zinkunegi baizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikuluan xedatutakoaren arabera, jarraian ageri den Araudi Proposamena aurkeztu dut, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala aldatzekoa, osoko bilkuran jorratzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) bereziki garrantzitsua da, Udalaren diru sarrera handienetako bat baita. Ondasun higiezinaren gaineko zerga zuzeneko tributu bat da, eta higiezinaren balioa zergapetzen du, haren izaera (landakoa edo hirikoa) eta zein lurzoru motatan dauden (orokorra, industrialak edo hirugarren sektorekoa) kontuan hartuta.

Hala ere, egungo ordenantzan, zerga tasak zehaztean ez dira kontuan izaten ondasun bakoitzaren erabilerak. Horrek egoera bidegabeak ekar ditzake, hala nola, etxebizitza funtzioa betetzen ari diren etxebizitzek eta askoz balio handiagoko beste ondasun batzuek, jarduera ekonomiko handiak egiteko erabiltzen dituztelarik, berdin ordaintzea.

Horregatik, komenigarritzat jotzen dugu Donostiara Estatu osoko hainbat udalerritan arrakastaz gauzatzen ari den proposamen bat ekartzea, hau da, balio handiko ondasunak (lurzoru industrial edo tertziarioan ez daudenak) beste mota batekin zergapetzea, bakoitzaren erabileraren arabera. Taula honetan definitutakoak dira zerga tasa horiek:

ERABILERAK	KATASTRO BALIOAREN ATALASEA	ZERGA MOTAK BEREIZIAK
Bulegoak	1.000.000 €	% 30

Komertziala	1.000.000 €	% 30
Industrialia	1.000.000 €	% 30
Biltegia, aparkalekua	2.000.000 €	% 30
Aisialdia eta ostalaritza	2.000.000 €	% 30
Kirola	10.000.000 €	% 30

Horiek horrela, honako ERABAKI hauek onartzea proposatzen diogu Donostiako Udaltzatari

ERABAKIAK

LEHENENGOA:

Azalpen zatiaren arabera, Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen Ordenantzaren eranskinaren barruan, hiri ondasun higiezin atalean, beste atal bat sartzea, koadroaren barruan, honela idatzita:

Tasa orokorraz gain, bizitegitarako hiri ondasunak izan ezik, karga tasa bereziak ezartzen dira industria lurzoruan edo hirugarren sektorean ez dauden eta jasotako erabilera bakoitzerako katastro balioa gaitzen duten hiri ondasun higiezinarako.

Honelaxe geratuko litzateke eranskina:

HIRI IZAERAKO ONDASUN HIGIEZINAK

	%
Zerga tasa orokorra	0,18213
Balorazio txostenen arabera, industria lurretan edo hirugarren sektorekoetan dauden ondasunentzako zerga tasak	0,43977
Eremu industrialean edo tertziarioan egon arren erabilera nagusia industrialia edo	0,18213

fertiarioa ez duten eraikinetan kokatutako hiriko ondasun higieziinei edozein kasutan ere zerga oinarri orokorra aplikatuko zaie.			
Etxebizitza dagoen udalerriko egoiliar baten ohiko bizileku ez diren etxebizitzaren kuotaren gaineko errenergua.			50
Hiri lurzoruan kokatutako ondasunak, katastroan adierazitakoa katastro baino balio handiagoa izan eta erabilera hauetako bat dutenak			
	ERABILERAK	KATASTRO BALIOAREN ATALASEA	ZERGA MOTAK BEREIZIAK
	Bulegoak	1.000.000 €	% 30
	Komertziala	1.000.000 €	% 30
	Industrial	1.000.000 €	% 30
	Biltegia, aparkalekua	2.000.000 €	% 30
	Aisialdia eta ostalaritza	2.000.000 €	% 30
	Kirola	10.000.000 €	% 30

LANDA IZAERAKO ONDASUN HIGIEZINAK

	%
Zerga oinarria	0,425

BIGARRENA:

Akordio hau izapidetzea 2021ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sar dadin, 11/1989 Foru Arauak, uztailaren 5ekoak, Gipuzkoako Toki Ogasunein buruzkoak, 16. artikuluan xedatutako prozedurari jarraituta. Ulertu beharra dago behin-behineko prozedura behin betiko bihurtuko dela erreklamaziorik aurkezten ez badute.

Sinatua:

Aitzole Araneta,

Elkarrekin Donostia udai taldearen bozeramailea.